

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4492

*EBAZPENA, 2025eko irailaren 19koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta istripua izandakoen anbulantziako errepide bidezko garraio sanitarioaren hitzarmen kolektiboaren Batzorde Parekidearen erabakia erregistratu, argitaratu eta gordailutzen duena (hitzarmen-kodearen zenbakia: 865100365012019).*

## AURREKARIAK

Lehenengoa.– Batzorde Parekideak onartu duen erabaki horri buruzko dokumentazioa 2025eko irailaren 18an aurkeztu da REGCON erregistroan.

## ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenengoa.– Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen baitira eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen) Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortu zuen 2. artikuluan, eta, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, sail horrek lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena egikaritu behar du, besteak beste.

Bigarrena.– Sinatutako akordioak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa inskribatu beharreko egintza bat da, 2010eko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Inskripzio-eskaera eta erantsitako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eskaerak; beraz, bat etorriaz Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroari eta gordailuari buruzko 2011ko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuak (2023ko otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuaren bidez aldatuak) 9. artikuluan xedatutakoarekin, hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko agintzea, eta alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 19a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAIXOEN ETA ISTRIPUA IZANDAKOEN ANBULANTZIAKO ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO SANITARIOAREN II. HITZARMEN KOLEKTIBOAREN BATZORDE PAREKIDEAREN ERABAKIA, SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAREN 31. ARTIKULUKO TAULAN ETA ERANSKINEKO TAULETAN DAUDEN AKATS MATERIALEN ZUZENKETARI BURUZ

2025eko irailaren 10ean bildu dira Bilbon, Lan Harremanen Kontseiluaren egoitza birtualean, EOGEn enpresa-elkartea eta ELA, UGT eta CCOO erakunde sindikalak, Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta istripua izandakoen ambulanzia-errepide bidezko garraio sanitarioaren II. hitzarmen kolektiboaren sinatzaile diren heinean, eta erabaki hau hartu dute aho batez:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta istripua izandakoen ambulanzia-errepide bidezko garraio sanitarioaren II. hitzarmen kolektiboaren 31. artikuluan dagoen taula zuzentzea. Akats materialak zuzenduko dira, eta artikulua hori beste honekin ordeztuko da ondorio guztietarako.

31. artikulua.– Dietak.

Langileak eskubidea izango du dietak jasotzeko. Honako hauek dira zenbatekoak:

a) Gosariko dieta: Zerbitzu bat dela-eta langilea goizeko 06:00ak baino lehen lanean hasten denean ordainduko da. Goizeko 06:00ak ondoren itzultzen denean ere ordainduko da.

b) Bazkarirako dieta: oro har, bazkaltzeko tartea 13:00etik 16:00etara izango da.

– Goizeko txandetan: langileak bere lanaldia 13:00etik 16:00etara bitartean amaitzen badu, ez da inola ere bazkari-dietarik sortuko. Bai, ordea, 16:00ak baino beranduago amaitzen bada, eta enpresak horretarako ezarrita duen prozeduraren arabera eskatu beharko du.

– Arratsaldeko txandetan: langileak bere lanaldia 13:00etik 16:00etara bitartean amaitzen badu, ez da inola ere bazkari-dietarik sortuko. Aitzitik, 13:00a baino lehen sartzen bada, bazkari-dieta sortuko du, eta enpresak horretarako ezarrita duen prozeduraren arabera eskatu beharko du dieta hori jasotzea.

c) Afariko dieta: Langileak, zerbitzu bat dela-eta lanaldia 23:00ak baino geroago amaitzen duenean ordainduko da.

d) Gaua kanpoan pasatzeagatik dieta: Ibilbide luzeko zerbitzu bat dela-eta langileak gaua etxetik kanpo igaro behar duenean ordainduko da.

Nolanahi ere, ostatuaren erreserba (zenbatekoaren baimena) eta ordainketa enpresaren kultura izango dira beti.

Afariagatik, gauagatik eta gosariagatik dieta jasotzetik salbuetsita daude gaueko lan espezifikoa egiten duten langileak.

Dieta guztiak jasotzetik salbuetsita daude oinarrizko bizi-euskarriko eta/edo bizi-euskarri aurretiko taldeetako larrialdi-zerbitzuetako langileak, baldin eta lantokian behar den ekipamendua badago langileak lan-eremuan jan ahal izateko (mikrouhin-labea, harraska, hozkailua, mahaia eta aulkiak), bai eta zerbitzuen arteko itxaronaldietan behar bezala atsedean hartzeko tresnak ere.

2025eko urriaren 24a, ostirala

Dieten zenbatekoa honakoa izango da:

Urteak	2022	2023	2024	2025	2026
Gosaria	5,50 €	5,78 €	5,98 €	6,19 €	6,40 €
Bazkaria	15,50 €	16,28 €	16,85 €	17,44 €	18,05 €
Afaria	15,50 €	16,28 €	16,85 €	17,44 €	18,05 €
Gaua	18,50 €	19,43 €	20,11 €	20,81 €	21,54 €

2027. urterako, dieten igoera EAEko 2026ko KPI + % 1,5 izango da, gutzizko gehieneko muga % 3,75 izanik eta gutxienekoa % 3,5.

2028. urterako, dieten igoera % 4koa izango da, 2027ko balioaren gainean.

Nolanahi ere, enpresak dieta ordaintzearen ordeztu gastua zuzenean ordain dezake. Atzerrira joanez gero, dieta horiek % 35 handituko dira.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta istripua izandakoen anbulantziako erre-pide bidezko garraio sanitarioaren II. hitzarmen kolektiboaren eranskineko taula zuzentzea. Dieten kontzeptuekin lotutako akats materialak zuzenduko dira, eta eranskin hori beste honekin ordeztuko da ondorio guztietarako:

Urteak		2022	2023 % 5 finkatua	2024	2025	2026
Taldea	Lanpostua		% 5	% 6	% 6	% 6
Taldea	Lanpostua		% 5	% 3,50	% 3,50	% 3,50
Kudeaketa, zuzendaritza eta administrazioko langileak	Arloko zuzendaria					
	Lizentziatua/Graduatua	33.816,23 €	35.507,04 €	36.749,79 €	38.036,03 €	39.367,29 €
	Diplomatua/Graduatua	29.409,24 €	30.879,70 €	31.960,49 €	33.079,11 €	34.236,88 €
	Goi-mailako teknikaria					
	Erdi-mailako teknikaria					
	Taldeburua	31.288,70 €	32.853,14 €	34.002,99 €	35.193,10 €	36.424,86 €
	Trafiko-burua	36.123,83 €	37.930,02 €	39.257,57 €	40.631,59 €	42.053,69 €
	Lantegi-burua	28.537,29 €	29.964,15 €	31.012,90 €	32.098,35 €	33.221,79 €
	Premiazkoa ez den osasun-garraioaren eta asistentziakoa ez den osasun-garraioaren koordinatzailea	31.288,70 €	32.853,14 €	34.002,99 €	35.193,10 €	36.424,86 €
	Premiazkoa ez den osasun-garraioaren eta asistentziakoa ez den osasun-garraioaren operadorea	24.032,53 €	25.234,16 €	26.117,35 €	27.031,46 €	27.977,56 €
	Ofizial administraria	27.734,25 €	29.120,96 €	30.140,20 €	31.195,10 €	32.286,93 €
	Administrari Lag.	24.032,53 €	25.234,16 €	26.117,35 €	27.031,46 €	27.977,56 €
	Osasun-langileak	Medikuntzako langileak	33.816,23 €	35.507,04 €	37.637,46 €	39.895,71 €
Erizaintzako langileak		29.409,24 €	30.879,70 €	32.732,48 €	34.696,43 €	36.778,22 €
Mediku koordinatzailea		33.816,23 €	35.507,04 €	37.637,46 €	39.895,71 €	42.289,45 €
Erizain koordinatzailea		29.409,24 €	30.879,70 €	32.732,48 €	34.696,43 €	36.778,22 €
OLT koordinatzailea		31.288,70 €	32.853,14 €	34.002,99 €	35.193,10 €	36.424,86 €
OLT gidaria		27.440,39 €	28.812,41 €	29.820,84 €	30.864,57 €	31.944,83 €
OLT		26.408,83 €	27.729,27 €	28.699,80 €	29.704,29 €	30.743,94 €
OGT-gidaria		27.440,39 €	28.812,41 €	29.820,84 €	30.864,57 €	31.944,83 €
OGT		26.408,83 €	27.729,27 €	28.699,80 €	29.704,29 €	30.743,94 €

2025eko urriaren 24a, ostirala

Urteak		2022	2023 % 5 finkatua	2024	2025	2026
Taldea	Lanpostua		% 5	% 6	% 6	% 6
Taldea	Lanpostua		% 5	% 3,50	% 3,50	% 3,50
Ustiapeneko langileak	Mekanikaria-txapista-margolaria	25.953,04 €	27.250,69 €	28.204,47 €	29.191,62 €	30.213,33 €
	2. Mailako mekanikari-txapista-margolari ofiziala	24.346,31 €	25.563,63 €	26.458,35 €	27.384,39 €	28.342,85 €
	Mekanikari-txapista-margolariaren laguntzailea	22.739,58 €	23.876,56 €	24.712,24 €	25.577,17 €	26.472,37 €
	Logistikako langileak	25.953,04 €	27.250,69 €	28.204,47 €	29.191,62 €	30.213,33 €
	Garbitzailea	24.032,54 €	25.234,17 €	26.117,36 €	27.031,47 €	27.977,57 €
	Mantentze-lanetako langileak	24.032,54 €	25.234,17 €	26.117,36 €	27.031,47 €	27.977,57 €

Plusak	2022	2023 Datua % 5 finkatua	2024	2025	2026
Jaieguneko plusa	50,00 €	52,50 €	54,34 €	56,24 €	58,21 €
Gosariko dieta	5,50 €	5,78 €	5,98 €	6,19 €	6,40 €
Bazkariko dieta	15,50 €	16,28 €	16,85 €	17,44 €	18,05 €
Afariko dieta	15,50 €	16,28 €	16,85 €	17,44 €	18,05 €
Gaueko dieta	18,50 €	19,43 €	20,11 €	20,81 €	21,54 €

Hirugarrena.— Emilia Málaga Pérez Lan Harremanen Kontseiluko presidenteari eskatzea lan-agintaritzari aurkeztu diezaiola Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta istripua izandakoen ambulanziko errepide bidezko garraio sanitarioaren II. hitzarmen kolektiboaren 31. artikulua eta eranskinetako taula zuzentzeko erabaki hau, erregistratu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ofizialki argitara dadin.

Euskadiko Osasun Garraioko Elkartea (EOGE), ELA, UGT eta CCOO.